

# **BATU GAITEZEN, HAUTESKUNDEAK IRABAZI ETA EZBERDINKI GOBERNATZEKO**

## **Elkartean izen ematea oinarritzen duen karta**

Bayonne/Baiona 2026 elkartea hautagaitza proiektu bat egituratzeko esparru juridikoa da. Proiektu honek 2026ko herri eta elkargo hauteskundeetarako zerrenda bat aurkezteko helburu du Baionako hirian eta Euskal Hirigune Elkargoan.

Elkartean izena eman dezakete karta honetan zehaztutako puntuak partekatzen dituzten pertsona orok.

### **Ekimen parte-hartzaile honek balio hauek partekatzen dituzten pertsonak biltzea du xede:**

Proiektuak ezkerreko indar ezberdinak batu nahi ditu eta batasun hori ordezkatzeko duen zerrenda bat aitzina eramateko helburua du. Proiektuak lehentasuna ematen dio batzen gaituenari, bakoitzaren sentsibilitateen gainetik, izan ere, beharrezko baldintza bihurtu baita ezkerreko balioak Baionan praktikan jarri ahal izateko, herritarrei hitza emateko eta eskuin muturraren mehatxua urruntzeko.

Guztiok garrantzi berezia ematen diegu politika sozialei. Desberdintasunak murrizteko eta justizia soziala sustatzeko asmoz, lehenik eta behin ingurune pupularretan edota egoera ahulean edo prekaritatean dauden pertsonen beharrei eta galdeei erantutea beharrezkotzat jotzen dugu. Eguneroko elkartasuna zerbitzu publikoen defentzan ere adierazten da, eta beraz horiei biziki lotuak garela azpimarratzen dugu.

Gobernantza partekatuaren eta eraikuntza kolektiboaren aldekoak garenez, demokrazia lokala garatzea dugu helburu, biztanleen eragite ahalmena sustatuz, haien ezagutza eta esperientziak kontuan hartuz, erabakietan parte hartzera gonbidatuz eta herriko etxearen ekintza osatzen duten herritarren engaiamenduetan oinarrituz.

Bestelako gobernantza baten aldeko determinazio honek erran nahi du erantzukizunak modu kolektibo eta partekatuan gauzatzea, oposizioarekin errespetuz jokatzeko eta berau entzunez, sormena eta esperimentazioa baliatuz, beste toki batzuetan egindako esperientziak aztertuz eta, behar denean, norberaren praktika zalantzan jartzeko gaitasuna izanez. Pentsatzen dugu politika publikoaren ikuspegi berri bat plantan ezarri behar dela, nun eta hautetsia ez den jaun eta jabe, baizik eta ekintza politikoa errazten eta animatzen duen persona bat, erantzukizun argi batekin.

Konbentzituak gira metamorfosi eta egokitzapen ekologikoa politika publiko guztien erdigunean kokatu behar direla, klima-aldaketari aurre egiteko eta biodibertsitatea zaintzeko. Anbizio ekologiko hori hiriaren funtzionamendu orokorrean eta hiriaren dispositibo guzietan islatu behar da.

Identitate kulturalen garapenaren eta unibertsaltasunaren aldekoak gira eta pentsatzen dugu bateragarriak direla. Euskal Herriari dagokionez, euskara sustatu eta haren etorkizuna bermatu nahi dugu, bai legean bai erabileran. Herritarren eragiteko ahalmena auzo eta bizileku bakoitzera eramanez nahi dugun bezala, beharrezkotzat jotzen dugu gaur egungo Euskal Herri Elkargoaren garapen instituzionala, haren konpetentziak indartuz, sufragio unibertsala plantan ezarri eta hurbiltasuna segurtatuz herritarren beharrei egokiago erantzuteko gisan.

Azkenik, guretzat funtsezkoa da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko

engaiamendua berrestea, eta arrazakeriaren, joera autoritarioen eta diskriminazio mota guztien kontrako jarrera sendoa adieraztea.

## **Barne eta kanpo komunikazioa**

Alderdi politiko edo elkarte batzuk gonbidatuko dira zerrenda sustengatzera, betiere ekimenaren dimentsio herritarra eta bateratzailea errespetatuko duten moduak erabiliz.

Komunikazio publikoan, beste zerrndekin izango ditugun eztabaidetan, lehentasuna emango zaio edukiari, pertsonen aurkako edo diskriminaziozko eraso oro baztertuz.

Euskara bermatua izango da komunikazio euskarri guztietan.

Elkarte barneko harremanetan, bakoitzak zaindu beharko du adeitasuna, errespetua eta aniztasunarekiko irekiera. Gardentasuna eta konfiantza bermatzeko, erabakien prozesuak argiak izango dira eta bazkide guztiei azalduko zaizkie.